



CCOO y UGT ya están negociando la reforma laboral con la CEOE. Esta reforma puede dejar a los trabajadores y trabajadoras de Euskal Herria sin derecho a negociar sus condiciones laborales y a poder hacer huelga a favor de las mismas, si los convenios sectoriales provinciales no tienen prioridad sobre los convenios estatales. Los convenios estatales son mucho peores que los firmados en el Euskal Herria, tienen salarios mucho más bajos y jornadas laborales más largas, por lo que la prioridad de los convenios estatales supondría nuestro empobrecimiento.

Además, estamos sufriendo despidos en muchas empresas, y estos despidos se están llevando a cabo con la reforma laboral de 2012. Entre las prioridades del Gobierno no está la modificación de esta normativa, por lo que, tal y como estamos viendo ahora, podemos seguir sufriendo despidos en empresas que han tenido enormes beneficios, despidos fáciles y baratos, despidos que, teniendo la ley en contra, sólo se pueden enfrentar mediante la movilización de los trabajadores y las trabajadoras.

ELA considera que hay que derogar las reformas laborales de 2010, 2011 y 2012, no basta con hacer algunas modificaciones parciales, pero en ningún caso entenderíamos una reforma que nos deje sin derecho a negociar nuestras condiciones de trabajo o que mantenga las facilidades para despedirnos.

Por otro lado, el Gobierno español está modificando la normativa del personal eventual del sector público. ELA considera que es imprescindible una legislación que permita consolidar a las 65.000 personas que han sufrido un uso fraudulento de los nombramientos provisionales. Según nuestra información no es eso lo que ha propuesto el gobierno español, es decir, puede poner en peligro los puestos de trabajo de los trabajadores y las trabajadoras eventuales actuales debilitando aún más los servicios públicos.

En Madrid los votos de los parlamentarios y parlamentarias vascas son imprescindibles para que el Gobierno mantenga la estabilidad. ELA considera que los partidos vascos no pueden sostener un gobierno si no se resuelven estas cuestiones anteriores, por eso los trabajadores y trabajadoras tenemos que activarnos y llenar las calles, porque como nunca tenemos la oportunidad de condicionar la legislación de Madrid.

25 de marzo a Bilbao, Donostia, Gasteiz, Iruñea!





CCOO eta UGT jadanik lan-erreforma negoziatzen ari dira CEOErekin. Erreforma horretan Euskal Herriko langileak beren lan-baldintzak negoziatzeko eta horien alde greba egiteko eskubiderik gabe utzi ditzakete, probintziako sektore hitzarmenek ez badute lehentasunik Estatuko hitzarmenekiko. Estatuko hitzarmenak Euskal Herrian sinatutakoak baino dexente okerragoak dira, soldata askoz baxuagoak dauzkate eta lanaldi luzeagoak, ondorioz, Estatuko hitzarmenen lehentasunak euskal langileon pobretzea ekarriko luke.

Horretaz gain, enpresa askotan kaleratzeak jasaten ari gara, eta kaleratze hauek 2012ko lan-erreformarekin egiten ari dira. Gobernuaren lehentasunen artean ez dago araudi hau aldatzea, ondorioz, orain ikusten ari garen moduan, izugarritzko irabaziak izan dituzten enpresetan kaleratzeak pairatzen jarrai dezakegu, kaleratze errazak eta merkeak, legea kontra izanik soilik langileen mobilizazio bitartez aurre egin dakieken kaleratzeak.

ELAren ustez 2010, 2011 eta 2012ko lan-erreformak bertan-behera utzi behar dira, ez da nahikoa aldaketa partzial batzuk egitea, baina inolaz ere ez genuke ulertuko euskal langileak negoziatzeko eskubiderik gabe utziko dituen edo langileak kaleratzeko erraztasunak mantenduko dituen erreforma bat egitea.

Bestetik, Espainiako gobernuak sektore publikoko behin-behineko langileen araudia aldatzen ari da. ELAren ustez behin behineko izendapenen erabilera iruzurtia jasan duten 65.000 langileak finkatzeko aukera emango duen legedia ezinbestekoa da. Gure informazioaren arabera ez da hori Espainiako gobernuak proposatu duena, hau da, egungo behin-behineko langileen lanpostuak arriskuan jarri ditzake zerbitzu publikoak oraindik gehiago ahulduz.

Madrilen Euskal Herriko parlamentarien botoak ezinbestekoak dira Gobernuak egonkortasuna mantendu dezan. ELAren ustez euskal alderdiek ezin dute gobernu bat sostengatu aurreko gai horiek konpondu ezean, horregatik langileok aktibatu egin behar dugu eta kaleak bete, inoiz ez bezala aukera dugulako Madrileko legedia baldintzatzeko.

Martxoaren 25an Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñeara!

